

6. Kasu praktikoa

X, Y eta Z Medicis SA baltzuaren administratzaileak dira. Baltzuak produktu sanitarioak ekoizten eta banatzen ditu. Hirurak administrazio kontseiluaren kide dira, orain dela bi urte izendatuak izan ziren eta estatutuen arabera ordezkapen ahalmena dute solidarioki.

2011 kontabilitatea aztertu ondoren, kontu ikuskariak egindako txostenaren ondorioz, hainbat egitate larri ezagutzen dira. Komunikabideetara iristen direnak, gainera.

1. **Xk** iazko apirilean A-SA enpresarengandik (Medicis SA baltzuaren lehiakidea dena) enpresa estrategia arloan emandako aholkularitza zerbitzuagatik 26.000 € jaso ditu. Ez du momentu honetan harremanik enpresa honekin. Bestalde, kontseiluaren adostasunarekin, dibisa-espekulazio negozio bat burutu du 10 miloi euroko galerako emaitzarekin. Ez da lehenengo aldia horrelako negozioak egiten dituela, objektu sozialaren barne geratzen dira eta emaitza onekin amaitu dira beste batzuetan. Honakoan ere aholkua jaso ondoren eta aukera desberdinak baloratu ondoren egin zen negozio hori.
2. **Yk**, bere lagun batekin, mundu osoan zehar burutuko zuten luxuzko bidai bat planifikatua zuen eta iazko apirilean egitea erabaki zuen. Beharko duten diru mordoxka lortzeko ideia bat bururatzen zaio: Medicis SAk hornidura kontratu garrantzitsu bat sinatu duela Alemaniako hainbat ospitalekin argitaratzen du martxoak 1ean. Berri horrek enpresaren akzioen balioa burtsan igoarazten du 10 eurotik 30era pasa eraziz. Yk bere 500.000 akzioak saltzen ditu dagozkion irabaziak lortuz. X eta Zk informazioa ezeztatzen dute bi egun beranduago eta horrek akzioen balioa 5 euroetaraino jaitsi erazten du. Horretaz gain enpresaren irudia merkatuan kaltetua suertatzen da.
3. **Zk** enpresarentzako egingo den eraikin berri baten lanak gainbegiratu behar ditu, baina denbora gutxi erabiltzen du horretarako eta ondorioz atzeratu egiten da eraikin berriaren martxan jartzea. Atzerapen horrek 20 miloiko galerak suposatzen ditu, ez baitira ekoiztu merkatuan jartzeko prest egon behar liratekeen hainbat produktu berri, enpresan bertan egindako ikerketa lanen fruitu direnak. Zk esaten du Xk eta Yk zegozkien lana egin izan balute berak izango zuela denbora gehiago

eraikin berriarentzako eta askotan eskatu ziela berain obligazioak betetzea, emaitzik gabe.

2012ko apirilean egiten den batzarrean, bazkide batek planteatzen du erantzukizuna eskatzeko aukera, baina nola kontrola beraiek eta beraien lagunak duten proposamena ez da onartzen. **A** akziodunak dena den ez du gauza horrela utzi nahi (berak dituen 1,2 miloi akzioak –kapitalaren %12a- 30 eurotan erosi zituen) eta zure laguntza eskatzen du. Zer proposatuko zenioke?